

Zientzia eta Teknologiaren atari berria sortu du Elhuyarrek

Zientzia.net: zientzia eta teknologiako 2.300 artikulu baino gehiago kontsultagai

Zientzia eta teknologiaren atari berria sortu du Elhuyarrek www.zientzia.net helbidean. Atari berria edukiz betetako gunea da eta zientziaren inguruko azken berriez gain kontsultarako hainbat informazio ere biltzen du.

Atari berriak zientzia eta teknologiaren inguruko albisterik interesgarrienak eskaintzen ditu, egunero-egunero. Elhuyarren bertan euskaraz landutako berriein batera, atzerriko zientziaguneetan landutako albisteetara jotzeko bidea ere egiten du [zientzia.net](http://www.zientzia.net) guneak.

Bilatzaile bidez, bestalde, erabiltzaileak *Elhuyar Zientzia eta Teknika* aldizkariaren aleetara jotzeko modua izango du.

Hiztegia kontsultatzeko aukera ere eskaintzen du atari berri honek *Zientzia eta Teknologiaren Hiztegi Entziklopedikoa*-ren bitartez. Egun, oinarrizko 15.000 definizio ditu euskarazko hiztegi honek eta Elhuyarren helburu da ingeles, gaztelania eta frantsesezko ordainak izango dituen hiztegi entziklopediko artikuluduna osatzea, 25.000 definizioz horniturik.

Zientzia.net atariaren bidez, erabiltzaileak posta elektronikoren bidez astean izan diren albisten laburpenak ordenagailuan jasotzeko aukera izango du, bai eta galde-erantzunen txokoan jakin-mina asetzeko asmoz galderak egiteko bidea ere.

Dudarik gabe, Elhuyarren atari berri honek euskaraz informazio-teknologia berrietan duen hutsunea betetzen lagunduko du.



Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso edo ezagunen bati bidaltzea nahi baduzu, idatzi helbide honetara:

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Donostia-San Sebastián, 1
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)
Tel.: 945 01 81 16
e-posta: l-sosoaga@ej-gv.es

Euskaraz Gaztelaniaz

Izen-deiturak:

.....

.....

Helbidea:

.....

Herria:

Kodea:

Lurraldea:

Tel.:

e-posta:

XIX. Lizardi saria, Begoña Bilbaorentzat 'Ibaia maitasunaren oztopo' lana, irabazle

Begoña Bilbao idazlearen "Ibaia maitasunaren oztopo" lanak irabazi du Zarauzko Udalaren 2000. urteko Lizardi saria, alegia, ospe eta garrantzi handieneko haur-literatura saria euskaraz. Esate baterako, Mariasun Landa, Bernardo Atxaga, Xabier Mendiguren, Pello Esnal, Patxi Zubizarreta, Javi Cillero, Felipe Juaristi, Gerardo Markuleta eta beste zenbait izen ezagun ageri dira sari honen irabazleen zerrendan.

"Ibaia maitasunaren oztopo" erreka batek banatzen dituen bi neska-mutikoren istorioa da. Erreka muga izanagatik, adiskidetasun jator baten oinarri ere izango da, ordea. Nolabait, aurreiritzien kontrako alegatoa ere bada Begoña Bilbaoren lana. Manu Ortegaren ilustrazioak dakartza argitalpenak.

Aurtengo irabazleak lehenago ere hainbat sari jaso du: Irun Hiria saria, Augustin Zubikarai saria, Labayru saria, Bilboko Udalaren "Emakumeak kontalari" saria, etab.



EUSKARAREN

Berripapera

Euskaltzaleen Biltzarrak 100 urte

Mende oso bat euskararen alde lanean

Izen handiko euskaltzaleak izan ditu kide bere historian zehar

aurkibidea

1 • Euskaltzaleen Biltzarraren mendeurrena

2 • PERTSONAJEA: Jean Louis Davant

• LABURRAK: Araba Euskaraz, "Hazteko erein"

Goierriko eta Tolosa hegoaldeko euskararen azterketa

• AGENDA: XX. Udako Ikastaroak

3 • Udako barnetegiak, 2001

• Panda Titanium Antibirusa, euskaraz

4 • Zientzia.net

• XIX. Lizardi saria, Begoña Bilbaorentzat

Orain ehun urte sortu zen Euskaltzaleen Biltzarra, euskararen alde lan egiteko asmotan. 1901eko irailaren 16an zazpi euskal herrietako hainbat euskaltzale bildu ziren Hendaiaiko Herriko Etxean. Denek ere gogo bera zuten: euskara azkartzea. Zaldubi idazleak zuzendu zuen lehenengo bileran era askotako lagunak bildu ziren: eliztarrak, errepublikarrak, abertzaleak... Elkartearen hastapenetan parte hartu zuten artean, izen handiak: Arturo Kanpion eta Georges Lacombe. Martin Landarretxe izan zen elkartearen sortzaile nagusi. 1842an Duzunaritzen sortua, Euskaltzaleen Biltzarraren lehen lehendakaria izan zen Landarretxe eta 1924 arte iraun zuen karguan.

Georges Lacombe, Jean Etxepare, Louis Dassance

Batasun giroak ez zuen luzaz iraun erakundearen baitan. 1914-18ko gerraz gero, frantses errepublikak nagusitasuna finkatu nahi izan zuen eta Ipar Euskal Herriko jendea frantses sentiarazteko baliatu zuen. Landarretxez gero, Georges Lacombe eta Jean Etxepare ageri dira elkartearen lehendakari izan zirenen artean.

1926an beste izen batek hartu zuen elkartea zuzentzeko ardura: Louis Dassancek. 1959 arte lehendakari izan zelarik, Hego Euskal Herriko euskaltzaleak baztertu zituen -Telesforo Monzon,

adibidez-, Frantziako legeak haien partehartzea baimentzen ez zuelakoan. Aita Pierre Laffitte bera ez zuen zuzendaritzan nahi izan Dassancek eta, aldiz, euskaltzale ez ziren zenbait hautagairi sarre- ra egin zien. Dassance, bestalde, eskualde hizkuntza eta kulturen defentsarako kontseilu nazional-eko lehendakariorde izan zen Parisen.

Mixel Labegerieren aldi berritzailea

Dassanceren ondotik Mixel Labegeriek hartu zuen lehendakaritza eta Piarres Xarritonen eta beste zenbaiten laguntzaz aldaketak ekarri nahi izan zizkion biltzarrari. Labegeriek Dassance kritikatu ere egin zuen elkarteko lehendakari izan zen garaian haurrei euskaraz ez irakasteagatik. Labegerieren zuzendaritzak ardura berriak eman zizkion elkar- teari, haurren geroaz bereziki kezkatu- rik. Haurrentzako lehiaketa antolatuz ekin zion eta Ikas zentro pedagogikoa sortuz segitu zuen. Zentro honek lau irakaskuntza sareak (ikastolak, sare elebidun publikoa, pribatua eta AEK) bildu ditu ikasmaterialekin ateratzeko.

Azken aldian, hainbat libururen argitaratzea bide- ratu du elkarreak. Tartean, Jean Etxepare mediku- arenak eta Piarres Larzabalen antzerkiak. Mende oso bat euskararen alde lanean jardun eta gero, Euskaltzaleen Biltzarra geroari buruz nondik nora jo aztertzen ari da.



Piarres Xarriton (esk.) Iratzeder olerkariarekin.

Laburrak



Araba Euskaraz, "Hazteko erein"

Arabako Ikastolen jaiaren hemezortzigarren aldia egin zen joan den hilaren 18an, Trebiñon, "Hazteko erein" lemapean. Festaren karietara, antolatzailerak Agurainen eta Arabako Errioxan urte askoan lanean jardun duen Patxi Zabaleta irakaslea omendu nahi izan zuten. 70.000 lagun baino gehiago bildu zen Trebiñoko Araba Euskaraz jaietan. Datorren urtean, berriz, Gasteizen izango da festa, Armentiako zelaietan barrena.

Goierriko eta Tolosa hegoaldeko hizkerak

IX. Gerriko ikerlan sariketaren irabazle Irene Hurtado bizkaitar filologoak Goierriko eta Tolosalde hegoaldeko hizkerak jasandako aldaketak aztertu ditu. Toki jakin horietako biztanleek dituzten harremanak eta joerak hizkera nola baldintzatzen duen aztertu du Irene Hurtadok. Goierriko eta Tolosako euskararen berezitasunak aztertu eta euskalkien geroaz ere ari izan da ikertzailea. Filologo honek adierazi duenez, euskarak bizirik irauten duen bitartean euskalkiak ere izango dira.

Agenda

XX. Uda Ikastaroak

Ekainaren hondarrean hasi eta irailaren erdialde arte iraungo dute aurtengo Euskal Herriko Unibertsitateak antolatutako Uda Ikastaroak. XX. aldia beteko dute aurten Donostiako Miramar jauregian egiten diren ikastaroak. XIII. urtez, berriz, Europar Ikastaroak ere izango dira.

Gai askoren artean, HABEren eta Europar Batzordearen elkarlanean, Bigarren Hizkuntzaren irakaskuntzari buruzko ikastaroa ere izango da aukeran. Hizkuntza-irakasleak, hizkuntza-eskoletako zuzendariak eta unibertsitate-irakasleak bilduko dira bertan, bigarren hizkuntza irakasten den ikasgeletan egindako ikerketa berrien albiste emateko. Joanba Bergara eta Joseba Arbelaitz dira ikastaroaren zuzendariak.




PERTSONAJEA

Jean Louis Davant

Xiberoko Makia, aurtengo pastoralaren egilea

Jean Louis Davant (Urrustoi-Larrabile, 1935)

Maulen burutu zuen Lehen Hezkuntza, Uztaritzen Bigarren Hezkuntza eta Angers-en, berriz, Ingeniaritza ikasketak. Euskaltzaina,



ZALDI ERO

1957az gero ari da idazle. *Gazte*, *Herria* eta *Enbata* aldizkarietan zaildu zuen luna, saiakerak, poemak eta nobelak idazten hasi baino lehen. Bere lanen urtean dira, besteak beste, *Aberrri eta klase burruka euskal mugimenduan*, *Makila gorria*, *Denboraren aroak*, *Nahi gabe*, *Iparren bila*, *Itsasoak iraultzan*...

Pastoralgile ere bada, ordea, Jean Louis Davant. Abadia *Urrustoi* idatzi zuen 1986an, *Euskaldunak iraultzan: Gotaine Irabarne* 1993an, eta berea du aurten Zuberoan erakutsiko duten pastoralaren ere: *Xiberoko Makia*, Sohütan emango baita uztailearen 15 eta 21ean.

Davanten arabera, bi maki talde baziren Zuberoan: bata Ospitalepe-Sohütakoa, bestea Maule, Arbaila, Larzabale, Larrabile, Basabürükoa. Aurtengo pastoralaren testua ondu duen egileak ahal izan duen bezainbat begirunez aztertu ditu bi makien joan-etorri ezkutukoak. Pastoralak, jakina, onak (makiak) eta gaiztoak (naziak) bereizten ditu, historia zehatz-mehatz izan den bezala erakutsi gabe, batzuk eta besteak sinbolo gisa harturik baizik.

Xiberoko Makia pastoralak duela berrogeita hamazazpi urte Zuberoak tirania garaitu eta Bigarren Mundu Gerraren bukaera aurreratzin –bere ahalean–, lagundu zuela erakusten du. Hiru ordu irauten duen obran, Jean Louis Davantek bost borrokalditan izan ziren zauritu eta hilen berri ematen du.

Autoreak aski garbi adierazi du bere asmoa pastoralaren testuari egin sarreran: "Antzerki hau lehen-lehenik zer den: askatarzün, libertate zabalaren aldeko kantore bat, halaber amodiozko kantore bat ama Züberoari, abertzaletarzün güzien gaintik, nahiz ez dütüdan horik ükatzen, arrazua errespetatzen düen ber. Nazione hanitxen arteko alkarlan handia izan zen orokorki "Liberazione" delakoa". Eta bukaera: "Eskerrak entelegatzeaz".



ZALDI ERO


Udako barnetegiak, 2001

Euskara ikasteko biderik eraginkorrena eta erosoena eskaintzea da helburu

Hogeita bat urte baino gehiago dira udako barnetegiak lehen aldiz eratu zirenetik eta asko baino gehiago dira udaldia euskaraz ikasteko baliatzen duten ikasleak.

Eskaintza ere ez da kamutsa eta hainbat herritan egin ohi dira ikastaroak. Euskara ikasteko biderik eraginkorrena, azkarrena eta erosoena eskaintzea da barnetegien helburua. Era berean, barnetegi dagoen herriko aukerak baliatu nahi izaten dira euskara egun osoz erabiltzeko, ingurua ezagutzeko, herrikoekin harremanak lantzeko eta kultur adierazpenak bertatik bertara bizitzeko.

Askotariko ikastaroak izango ditu aukeran euskara ikasleak, uztailean, abuztuan eta irailean. Ondoko mapan ageri dira barnetegiak izango dituzten herriak.



Panda Titanium Antibirusa, euskaraz uztailaz gero

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak bultzaturik, EJIEk eta Panda Software etxeak akordio bat sinatu dute hiru produktu euskarara lokalizatzeko: Panda Titanium Antibirusa, Panda Platinum 7.0 Antibirusa eta Panda SAG (Antivirus Aseguru Globala). Akordioaren lehenengo emaitza Panda Titanium Antibirusa da. Uztailetik aurrera, www.pandasoftware.es/titanium/euskara web-gunean eskuragarri dago. Bertatik bi aukera eskaintzen dira: 30 egunetan produktua doan probatzea, edo erostea (salneurria 4.990 pta, BEZ barne).

Titanium-en atzetik birusen aurkako beste bi produktuak etorriko dira.